# EGITARAUA

## Ils et Elles sont nés en 1923an sortu dira:

-ELISSETCHE Jean dit Ganich (Mikolasenea) le 17/04.

-ETCHEVERRY Jean-Baptiste (Sastriania) le 8/07.

-ETCHEVERRY Pierre (Ibarla Borda) le 26/10.

-ETCHEVERRY Gracianne (Urdaburia) le 25/12.

-ETULAIN Isabelle (Etcheparia) le 19/08.

-INCAURGARAT Pierre (Arrussia) le 17/07.

-FIMES Marie (Noblia) le 04/09.

-MARTINTO Mariane (Attatte- Ttipia) le 29/01.

-URRUTIA Marie (Teilanania) le 27/09.

## Elles et ils se sont dit « Oui » il y a 100 ans– Ezkondu dira duela 100 urte:



-ETCHEVERRY Jean-Pierre & ECHEGARAY Maria (04/02).

-DARLAS Jean & CEDARRY Dominika (06/02).

-LASSAGA Michel & ORHATEGARAY Gracianne (07/02).

-ITHURBIDE Pierre & DUHALDE Marie (13/04).

-DUHALDE Pierre & LARRALDE Amélie (22/04).

-ETCHEVERRY Baptiste & CORDOVA Joséphine (23/04).

-BERHO Pierre & ETCHEBESTE Jeanne (11/05).

-ETCHEVERRY Michel & TIPY Dominica (15/05).

-LARRE Pierre & BORDA Gracianne (26/06).

-AMESTOY Pierre & OXOBY Anne-Marie (08/08).

-ETCHEVERRY Pierre & ORHATEGARAY Anne-Marie (28/11).

-ELISSETCHE Etienne & CAMINO Jeanne (10/12).

## Ils et Elles nous ont quittés en 1923ean joan direnak:

-BIDEGAIN Maria-Baptista (Munhoa) le 17/02- 81 ans.
-BONSON Dominica (Sastriania) le 08/07- 32 ans.
-CEDARRY Pierre (Putchia) le 23/08- 88 ans.
-CHORRA Jeanne (Apezan Saharia) le 19/03- 61 ans.
-ELISSETCHE Martin (Micolachenia) le 10/02- 45 ans.
-HAISQUET Marie (Chorrioa) le 19/07- 84 ans.
-IBARROLA Maria-Thomasa (Charabilenia) le 13/05 - 80 ans.
-IDIALOUR Dominique (Legarrea) le 24/10- 82 ans.
-INCAURGARAT Pedro (Arrusia) LE 17/07;
-OHAT Jean (Ohatea) le 12 janvier- 68 ans.
-SOUBELET Martin (Atchitonea) le 20/08- 52 ans.
-VIERGE Bernardo (Ahate Beheria) le 29/01- 83 ans.

*L'orthographe des noms est conforme aux registres d'état civil de l'époque.*
*Izen guzien idatzeko manera izen-zerrendetik atxiki ditugu.*

## Le carnet de 2022:

Naissances—Sortzeak:
-CHANEAC Gilen (Arnate).
-AMESTOY Luken (Xoko Ona).
-ETCHEVERRY Xan (Esteinua).
-NICOLAS Mélissa-Cœur (Olhaberria).
-FORTES OLHABAGARY Thaïs (Oihan Alde).
-TERNISIEN Laida (Bide artea).



Décès— Heriotzeak:
-TIPY Jean-Michel (Bernatenea) - 76 ans.
-ETCHEVERRY épouse DUCLOS Marie-Jeanne (Biena) - 83 ans.
-GASQUARD épouse Barnetche Nadine (Gehexanea) - 61 ans.

## Mariages 2022-ko Ezkontzak

-URRIZA Graxi & MESTRALLET Michel (Arxinanea)
-LABORDE Elena & MATEO Mizel (Nikolasenea).
-BRAZ Sophie & AUCHE Thierry (Erdiko Etxea-Olhaberria).
-TIPY Maritxu & ITURRIA Olivier (Bernatenea)

Bulletin d'information de Bidarray

Janvier 2023. Urtarrila

# BIDARRAIKO BERRIAK

### Dans ce numéro :


| | |
|---|---|
| Obrak<br>Commission de travaux | 1 à 5 |
| Ingurumena<br>Environnement | 5 à 7 |
| Herriko bizia<br>La vie de Bidarray | 8 à 13 |
| Herriko elkarteak<br>Les associations de Bidarray | 14 à 19 |


Commune de Bidarray
*Bidarraiko Herria*

*Adresse / Helbidea*
Mairie / *Herriko etxea*
64780 - BIDARRAI
•••••
☎ 05 59 37 71 51
•••••
www.bidarray.fr

Messagerie :
mairie.bidarray@gmail.com

*Heures d'ouverture de la mairie :*
*Herriko Etxearen idekitzea:*

Mardi / *Asteartea*
Jeudi / *Osteguna*
Vendredi / *Ostirala*
*08 : 30 ➪ 12 : 30*
*13 : 30 ➪ 17 : 30*

Mercredi / Asteazkena
*13 : 30 ➪ 17 : 30*
*eta*
Samedi / *Larunbata*
*09 : 00 ➪ 12 : 00*

***Fermeture le mercredi matin***

### *Sar Hitza*

Bidarraitar maiteak,

2020 eta 2021 urteetan erdi geldirik egoteaz behartuak izan ondoan, 2022. urtea berriz, kasik normalki pasatu ahal izan dugu, herriko indar biziei esker eta elkarteek ohiko hitzorduak (besta, kultura, kirol eta gaineratekoak) antolatu ahal izan dituztelarik.

2023. urtea ekonomikoki zaila agertzen zaigu, inflazioagatik eta gure eguneroko alor orotan biziaren kostuagatik; horrek gogoetatzera eta, behar bada, beste molde batez bizitzera behartzen gaitu ere.

Berdin gertatzen zaigu herriaren gastuei dagokienez ere; gastu horiek berriz aztertu behar ditugu eta inflazioak ezartzen dizkigun hertsaduren arabera kalkulatu.

Argi da aitzina jarraitu behar dugula eta baikor jokatu, zorionez dugun ingurumen eder honetan.

Herriko kontseiluak eta herriko langileek bat egiten dute nirekin 2023. urte eder-ederra zuei desiratzeko, nahiko osagarrian izanez biziaren goxotasun xumeetaz gozatzeko.

### *Edito*

Chers Bidarraitar,

Après une mise en veille forcée des années 2020 et 2021, l'année 2022 a enfin pu se dérouler presque normalement grace à la volonté des forces vives du village et des différentes associations qui ont pu assurer les grands rendez-vous traditionnels festifs, culturels, sportifs et autres.

L'année 2023 s'annonce compliquée économiquement au vue de l'inflation et du coût de la vie dans différents domaines, cela va nous obliger à réfléchir et appréhender différemment notre quotidien.

Il en est de même pour les dépenses de la commune que nous devons revoir et calculer au regard des contraintes imposées par cette inflation.

Il est évident que nous devons aller de l'avant et rester positif dans cet environnement qui nous entoure et dans lequel nous avons la chance de vivre.

Le conseil municipal et les agents de la commune se joignent à moi pour vous souhaiter une très bonne année 2023 avec une bonne santé qui vous soutienne dans les bonheurs simples de la vie.

## EGINAK IZANEN DIREN OBRAK

### I- Herriko eraikinak:

Kantonieren lokala handitzeko lanak kasik bururatuak dira. Bururatu ondoan, FREDERIC MARISCO enpresak, eraikinaren inguruak mundrunatuko ditu, lekua laketago uzteko.

Urtarriletik goiti, Postetxe-ondoko lokala (jantegi ohia), 50 m²ko apartamentu bihurtuko da. Herriko langileak ariko dira ere lan horietan.

### II- Bideak:

2023an, Munhokobordatik Lohietara doan bidexka mundrunatua izanen da.

Lan horien %80a, mendiko diru-funtsekin pagatua izanen da.

GANARI aldean: Olharrepera doan errepide zati bat berritua izanen da, mundruna eskualdeka eta zenbait bidegurutzetan berrituz.

2023tik goiti, Departamenduak herriei ematen dien dirulaguntzaren maila bide lanak egiteko, %40tik %30era apaldu da eta dirulaguntza 75 034 €ra (ZG) mugatuz.

2022an eginak izan diren bide lanen kostua, 145 822 €koa izan da eta Departamenduak %40ko dirulaguntza eman du horien egiteko, hau da, 30 013,60€. Gainerateko %60a herriaren kontu da.

## TRAVAUX A VENIR

### I- Bâtiments communaux:

Les travaux d'agrandissement du local des cantonniers pour du stockage sont en cours de finition. Une fois terminé, l'entreprise FREDERIC MARISCO réalisera des enrobés autour du bâtiment afin de rendre cet espace plus agréable.

A partir de janvier, le local situé à côté de la Poste (ancienne cantine) sera converti en appartement d'une superficie d'environ 50 m². Ces travaux seront également réalisés par les agents.

### II- Voirie:

En 2023, des travaux d'enrobés seront réalisés sur la piste qui va de Munhokoborda jusqu'à Lohieta.

Ces travaux seront financés à 80 % par des fonds pastoraux.

Vers GANARI: La route à destination d'Olharrepea sera en partie rénovée avec réfection des enrobés par secteurs et plusieurs zones de croisement.

A partir de 2023, le taux de subventionnement Départemental dans le soutien financier aux communes pour les travaux de voirie passe de 40% à 30% sur un plafond de 75 034€ HT.

Courant 2022, les travaux de voirie réalisés ont coûté 145 822€ subventionnés à hauteur de 40% par le Département soit 30 013,60€ sur le plafond de 74 034€. Les 60% restants sont à la charge de la commune.

## ALOKATZEKO BULEGOAK

Bidarraiko herriko etxeak proposatzen dizue bulegoak alokatzea Artetxea batimenduan direnak.

Interesatua baldin bazirezte, herriko etxearekin harremanetan sartzen ahal zirezte (mairie.bidarray@gmail.com - 05.59.37.71.51).

## LOCATION DE BUREAUX

La commune de Bidarray propose des bureaux à louer dans le bâtiment Artetxea à partir de début janvier. Il s'agit de locations permanente ou à l'heure, à la demi-journée ou à la journée.

Si vous souhaitez davantage d'informations, contactez la mairie (mairie.bidarray@gmail.com - 05.59.37.71.51).



## BAZTANDARRAK

Meilleurs vœux à toutes et à tous pour cette nouvelle année au nom de notre association Baztandarrak.

Encore une belle édition et d'excellents retours pour le BKTRAIL2012
Un excellent week-end s'annonçait dès le vendredi par le retrait des dossards.

Le samedi matin, 280 coureurs s'élançaient à 7h00 pour la 2° édition du BK45. une heure plus tard, à 8h00, c'est la 1° édition du BK24 qui démarrait 410 concurrents.

Le premier du BK45, CAZAJOUS Maxime franchissait la ligne d'arrivée en 4h11. La première féminine, PAULY Jocelyne survolait cette 2° édition en bouclant le parcours en 4h53.

Sur le BK24, LARRALDE Joseba, repartait avec la boina en bouclant le semi en 2h08. Chez les féminines, DINCLAUX Sarah gagnait en 2h44.

Suite à la remise des prix, les concurrents et bénévoles ont pu passer un excellent moment autour du dernier ravitaillement que nous leur avions préparé.

La JOURNEE BK, cette année à Bidarrai pour la 1° fois, autrefois à Artxilondo, a permis de regrouper membres, partenaires et bénévoles autour d'un excellent zikiro le samedi 08 octobre, l'objectif principal étant de remercier toutes celles et ceux qui participent de près ou de loin à l'organisation du BKTRAIL, excellente ambiance toute la journée et tard le soir…

Cette année, le BKTRAIL2023 aura lieu le week end du 22 juillet.
Nous débuterons cette édition le vendredi après-midi par le retrait des dossards.
Le samedi matin à 7h00 s'élanceront 350 traileurs pour la 11° édition du BK42. A 8h s'émanceront les 350 concurrents de la 24° édition du BK21

Comme chaque année, les inscriptions aux deux courses seront limitées et pourront se faire à partir du 14 février sur notre site.

Comme vous pouvez l'imaginer, nous aurons besoin de la contribution de tous pour organiser cette nouvelle édition.






## BAZTANDARRAK

Baztandarrak elkartearen izenean nahi dautzuet urte berri on bat zabaldu herritar guzieri osagarri on batekin erran gabe doa.

BKTRAIL2022ko egunak arrakasta ederra ukan du aurten ere. Aste burua dortzal banaketarekin hasi ginuen uztailaren 22an ostiralez

Larunbat goizean, 7etan bi garren aldikotz BK42 lasterketa abiatu zen 280 lasterkariekin. Bi orduren buruan, beste 410 bat abiatzen ziren goizeko 8etan, BK24 lasterketaren lehen edizioan.

BK45ko lehen gizona, CAZAJOUS Maxime lasterkari ezaguna, 4 oren eta 11 minutaz helmugarat heltzen zen. Lehen neska aldiz PAULY Jocelyne 4 oren et 53 minuta ezarri zituen.

BK24ean aldiz LARRALDE Josebak, zuen txapela buru gainean ezarri 2 oren eta 8 minutaz lasterketa bukatuz. Emaztetan txapeldun DINCLAUX Sarah 2 oren eta 44 minutaz.

Sari banaketaren ondotik, lasterkari eta laguntzaile guziek parada ukan zuten elkarteak proposatutako jan eta edatekoekin segitzeko, hau dena giro goxo batetan.

Aurtengo berrikuntza izan da ere BK EGUNA Bidarrain antolatzea, Artxilondoko kaskoak ahantziz. Egunaren helburua dela kide, laguntzaile eta partaidekin momentu goxo bat pasatzea. Jende multxo ederra bildu zen urriaren 8an ahotik ezin huntzitako zikiroa elgarrekin partikatzeko. Berantean oraindik entzuten ziren kantuak Bidarraiko plazan…

Aurtengo hitz orduak aipatzeko, BKTRAIL2023a uztailaren 22ko asteburuan izanen da.
Ostiral arratsaldean, dortzal banaketarekin hasiko gira.
Biharamun goizean, 7etan eta hameka garren aldikotz BK42an abiatuko dira 350 lasterkari. 8etan aldiz BK21a da abiatuako hogoitalau garren aldikotz hau ere 350 lasterkariekin

Urte guziz bezala bi lasterketen parte hartzea mugatua izanen da, izenen emaiteak otsailaren 14an hasiko dira gure web gunean.

Erran gabe doa aurten ere zuen denen beharra ukanen dugula holako proiektu eder baten antolatzeko.

Bigarren hitz ordua, BK EGUNA. Urte guziz bezala, BKTRAIL2023ko laguntzaileak eta partaideak, gomitatuak izanen dira, Bidarraiko Artetxea gelarat hurbilduz, urriaren 7an eguerdiarekin elgarrekin egun goxo bat pasatzerat.

Baztandarrak elkartearekin harremanetan sartzeko edo gure berri nahi baduzue: www.baztandarrak.fr , igorriz e-mail bat: baztandarraktrail@gmail.com baita facebook.

Izan untsa eta ikus arte

BK elkartearen izenean, SALLABERRY Patxi





## Lurra

Aire Zabal:

Aire Zabal elkarteak, aterpetxearen etorkizunaz gogoeta egin eta Herriko Etxearekin eztabaidatu ondoren, bere ondarea eta aktibitatea herriaren esku uztea erabaki du.
2022ko abenduaren 20ko herriko kontseilu bilkuran, hautetsiek erabaki dute, eta eskaintza hori urririk egitearen alde deliberatu dute.
Herriko Etxea, aterpetxe horren gizarte, kultura eta haurridetasunezko asmoa atxikitzera engaiatu da.
Notario akta idazte-bidean da, eragiketa burutzeko.

TLEP-EPFL (Tokiko Lur-Funtsen Erakunde Publikoa)

Duperou jaun-andereekin negoziatu eta hastapeneko finantzamendua sinatua izan da TLEParekin, Bidarraiko plazan (Bidarraiko Aire Zabal aterpetxearen aitzinean) 2000 $m^2$ko lursail eraikigarri baten erosteko. Bidarraiko Herriak 8979 € pagatuko dizkio urtean, 8 urtez, TLEPari.

Lursaila zedarritua izan ondoren, ondasuna herriaren esku emateko hitzarmena sinatua izan da. Ondotik, lursail hau hesiz zerratua izanen dena.

Laborantzako lur-funtsak:

Komunikabideetan jakin dukezuen arabera, Bidarraiko Herriko Etxeak gaitzespen-mozio bat hartu du, Laurentxeneko 16Ha laborantza-lur jabetza hutsean saldua izana baita salatzeko.
Alabaina, herriak arras gaitzesten du eskualdaketa hori, jakinez, jabetza hutsean egiten den salmenta, legezkoa izanik ere, SAFER erakundearen lehentasunez erosteko eskubidea baztertzeko aukera ematen baitu, erakunde honek espekulazioaren kontra aritzeko zeregina baitu eta laborantza-lurrak laborarientzat atxikitzearen alde ari baita. Lege-bilakaeretan zinez gooitatua den lege proposamen batek emanen du hain segur, ondoko urteetan lehentasunez erosteko eskubidea jabetza hutseko salmentetara ere zabaltzeko aukera, eskualdaketa horiek geldiarazteko eta lekuan ari diren erakundeen boterea azkartzeko.

## Foncier

Aire Zabal:

L'association Aire Zabal, réfléchissant à l'avenir du gîte, et après discussion avec la mairie, a décidé de lui confier son patrimoine et son activité.
Lors de la réunion du conseil municipal du 20 décembre 2022, les élus ont délibéré pour l'acceptation de cette offre à titre gratuit.
La Commune s'est engagée à maintenir la vocation sociale, culturelle et fraternelle de ce gîte.
L'acte notarié est en cours de rédaction afin de finaliser cette opération.

EPFL (Etablissement Public Foncier Local):

Après négociation avec Monsieur et Madame Duperou, un portage financier a été conclu avec l'EPFL afin d'acquérir une parcelle constructible de 2000 $m^2$ sur la place de Bidarray (devant le gîte Aire Zabal). La commune de Bidarray versera une annuité de 8979€ pendant 8 ans à l'EPFL.

Une convention de mise à disposition du bien pour la commune a également été signée après bornage du terrain qui sera par la suite clôturé.

Foncier agricole:

Comme vous l'avez certainement appris dans les médias, la municipalité de Bidarray a pris une motion de désapprobation afin de dénoncer la vente en nue-propriété de 16Ha de terres agricoles au lieudit Laurentxenea.
En effet, la commune désapprouve totalement cette transaction sachant qu'une vente en nue-propriété, bien que légale, permet de passer outre la préemption de la SAFER qui a un rôle de lutte contre la spéculation et la préservation de la vocation paysanne des terres agricoles. Une proposition de loi très attendue dans les évolutions législatives permettra sans doute d'étendre la possibilité de préemption à la nue-propriété dans les années à venir afin d'arrêter ces transactions et d'accroitre le pouvoir des institutions.

## Energia

Elektrizitate guttiago gastatzeko analisi bat eginen du Bidarraiko herriko etxeak.

Estudio hori aintzin, argi-publikoa arratseko 9tan itzalia izanen da eta karrika-argi batzuk itzaliak egonen dira.



## Energie

Une étude ayant pour but de diminuer la consommation d'électricité dans les bâtiments publics sera menée par la commune de Bidarray.
En attendant, l'éclairage public sera désormais éteint à 21h à 7h et certains lampadaires resteront éteints.

## ONDDOENEA

**Onddoenea 4.0**

Eraikuntzaren TSA ekonomistaren azterketa teknikoei jarraikiz, herriak ONDDOENEA eraikina barreiatzeko eta berriz eraikitzeko xedea hartu du.
Alabaina, aterabide hori da egokiena:
-Hala egitea, erreberritzea baino merkeagoa da.
-Ikuspuntu tekniko batetik, berreraikitzeak energia aurrezpenerako eta garapen iraunkorreko berrikuntza guziak baliatzeko aukera emanen digu.

Programatze azterketa baterako eskaintza-deialdia abiatu berria dugu. Deialdi horren helburua: ONDDOENEA eraikinaren berreraikitzearen hirigintza azterketa, arkitektura azterketa, azterketa teknikoa eta diruzko azterketa egitea.

Azterlan honek, obren obragintzari bere helburu operatiboak adierazten eta justifikatzen lagunduko dio, baita horiek aplikatzeko baldintzak zehazten ere. Beraz, berreraikitze horren bideragarritasuna ebaluatzen duten ikuspegietan jarraitzen du.

Programatzailearen hautaketa urtarril hondarrean gauzatuko da eta honek egin azterketa-lana ekain hondarrean aurkeztu beharko digu.

Aldi berean, lantaldeak eraikin horretan eginen diren aktibitateen eta ukanen duen funtzionatze moldearen gaineko gogoeta saioak egiten segitzen du. Lantalde horrek koordinatuko ditu Bidarraiko elkarteek proposatu ekitaldi eta ekintzak ere. Lan horrekin interesa duen bidarraitar oro, taldean gogotik hartua izanen da.

2023. urtean berean, leku horren etorkizuneko aktibitateen itxura emanen duten zenbait ekitaldi egitea aitzin-ikusten da.

Herriak, Herriko Etxearen gaineko bulego batzu alokatu ditu, ondotik ONDDOENEA eraikinera joanen direnak.

KANALDUDEk antolaturik, Francois Froget-ek, torero taxi baten biziari buruz egin dokumentala proiektatua izan da jadanik.
Egitura hori, lurralde mailako lotura-leku bat izanen da ere
Eskualdeak, Departamenduak, Euskal Elkargoak, Garazi-Baigorri eremuak eta herritarren taldeko animatzaileek gidaritza-batzordea kudeatzen dute proiektuaren aitzinarazteko.

Suite aux études techniques de l'économiste de la construction TSA la municipalité s'achemine vers une déconstruction reconstruction d' ONDDOENEA .

En effet, ce scénario s'avère moins coûteux qu'une rénovation et d'un point de vue technique, une reconstruction permettra d'appliquer toutes les innovations au niveau économie d'énergie et développement durable.

L'appel d'offre pour une étude de programmation vient d'être lancée. Ce marché a pour objet une étude urbaine, architecturale, technique, et financière de la reconstruction.

Cette étude aidera la maitrise d'ouvrage à exprimer et justifier ses objectifs opérationnels et à définir les conditions de leur mise en œuvre, elle évaluera la faisabilité d' une telle reconstruction. Mi-février le choix du programmiste sera acté et fin juin ce dernier rendra son étude.

En parallèle le groupe de travail continue ses séances de réflexion sur le fonctionnement et les activités qui vont se dérouler dans ce bâtiment.

Tous les bidarraitar intéressés par ce travail seront les bienvenus dans le groupe .

Dès 2023,il est prévu quelques évènements qui préfigureront des activités de cet espace qui se veut un lieu de culture, de rencontres et de lien entre les associations et les habitants du village et du territoire mais aussi un lieu de travail avec un espace de coworking.

Dans cet esprit, fin 2022, organisé par KANALDUDE a déjà eu lieu la projection d'un documentaire réalisé par Francois Froget sur la vie d' un torero taxi. La municipalité a mis en location des bureaux situés au dessus de la mairie qui à terme déménageront vers ONDDOENEA.

Des réunions de copilotage où sont présents la région ,le département ,la CAPB, le pole Garazi-Baigorri ainsi que les animateurs du collectif des villageois encadrent l'avancée de ce projet .



## ESKOLA

Iaz, urte hondarreko erranaldiaren izenburua: «Masken gibelean, irriñoak» izan zen… Urtebete joan zaigu eta osasun protokoloak lasaitu ondoren, orain, «Maskarik gabe, irriñoek azkenian hatsa hartzen dute» eman diezaiokegu izena.

Eskolak 6 haur berri ditu aurten; ongi etorriak daitezela. Ondorioz, aurten, 38 haur ditugu 33 familiatatik.

Familia anitz etorri zaizkigu, suharki eta arras motibatuak, urteko lehenbiziko bilkurara, elkarren artean mintzatzeko eta ikusmoldeak partekatzeko, eta horren ondotik arrakastatsuak izan diren hainbat ekitaldi jadanik antolatu ahal izan ditugu: bixkotxen saltzea Omiasainduko meza egunean; txokolate saltzea urte hondarreko bestetan eta mus txapelketa azaro hondarrean, Bidarrain.

Horien ondorioz egin irabaziei esker diruztatzen ahalko ditugu aurten aurreikusiak ditugun eskola ateraldiak (ikuskizunak, zinema, igerilekua…), urteko ohiko ekitaldiak (Eguberri, ihauteri, …) eta, baita urte hondarreko ateraldi proiektu bat ere, pedagogia taldea prestatzen ari dena. Eguberriko arratsaldeko askari bat antolatu ahal izan dugu ere, Bizarzuri eta Olentzero eskolarendako opariekin etorri ziren ikuskizun eder baten ondotik.
Ikasturtea ez da bukatua eta beste ekitaldi batzuren proiektuak sortuko dira ondoko asteetan; beraz zagozte erne!
Elkartearen proiektuak eta ekintzak hurbiletik edo urrunetik sustengatu edo bultzatu dituzten guziak eskertu nahi genituzke!
Gure agiantza hoberenak orori, 2023. urte berriarendako!

Bidarraiko eskolako ikasleen burasoen elkartea

## ECOLE APE

L'année dernière, nous avions titré ce mot de fin d'année : « Derrière les masques, les sourires »… Une année est passée et depuis le relâchement des protocoles sanitaires, nous pouvons désormais titrer « Sans masques, les sourires respirent enfin » !

L'école accueille cette année 6 nouvelles recrues et nous leur souhaitons chaleureusement la bienvenue. Ainsi l'effectif est cette année de 38 enfants pour 33 familles.

C'est rempli d'enthousiasme et de motivation que de nombreuses familles sont venues échanger et partager lors de la première réunion de l'année, à l'issue de laquelle nous avons déjà pu organiser plusieurs événements dont le succès et la réussite de chacun ont été au rendez-vous : une vente de gâteaux lors de la messe de la Toussaint, une vente de chocolat pour les fêtes de fin d'année et un tournoi de Mus fin Novembre à Bidarray.

Les bénéfices obtenus vont permettre de financer les différentes sorties scolaires prévues cette année (spectacles, cinéma, piscine, …), les divers événements marquants (Noël, carnaval, …) et, pourquoi pas, un projet de sortie de fin d'année, en cours de construction par l'équipe pédagogique. Nous avons également pu organiser un goûter de Noël à l'issu d'un beau spectacle, où le Père Noël et Olentzero ont pu être conviés, en profitant pour amener quelques cadeaux pour l'école.
L'année scolaire n'est pas finie et d'autres projets d'événements vont voir le jour ces prochaines semaines, alors restez attentifs !
Nous tenons à remercier toutes les personnes qui ont participé, soutenu ou encouragé, de près ou de loin, les projets et les actions de l'association.
Nous souhaitons à tous nos meilleurs vœux pour l'année 2023 !



L'Association des Parents d'Élèves de l'école de Bidarray

## Besta komitea / Comité des fêtes

Egun on deneri,

Aurten, Bidarraiko bestak 2023ko uztailaren 13tik uztailaren 17rat iraganen dira. Bestak zikiroarekin hasiko dira, uztailaren 13an, ostegunarekin.
Heldu den urteko bestak antolatzeko helburuarekin, komiteak biltzen segitzen du.
Apirilan, sagarnotegi ateraldia antolatzen dugu Astigarragan, urtero bezala, autobusa eskainiz Bidarraitarrentzat. Jakinean atxikitzen zaituztegu data ez baita oraindik finkatua.

Anartean, urte berri on deneri !

Bonjour,

Cette année, les fêtes de Bidarray se dérouleront du jeudi 13 juillet au lundi 17 juillet 2023.
Les fêtes débuteront avec le méchoui, le jeudi 13 juillet. Le comité continue de se réunir pour l'organisation de ces fêtes et la recherche des différentes animations qui compléteront le programme.
En avril, nous organiserons la sortie cidrerie à Astigarraga avec le trajet en bus offert par l'association pour les bidarraitars. Nous vous tiendrons au courant de la date qui sera fixée ultérieurement.
En attendant, nous vous souhaitons une très belle année 2023.

## Bidarraiko ACCA Bidarray

Bidarraiko ihiztarien elkarteak urte berri on eta zoriontsu bat ospatzen dizue.

Ihiztaria denboraldia segitzen dugu laborari ainitzen konfiantsarekin.
Milesker handi bat haieri.

ACCA elkartea

L'association des chasseurs vous souhaite une bonne et heureuse année 2023.
Nous poursuivons notre saison avec la confiance de la majorité des agriculteurs.
Un grand merci à eux.
Meilleurs vœux.





L'ACCA

## Liburutegia

Urte berri on bat ospatzen dizue Liburutegiko taldeak, irakurketa aberasgarriekin.

Espero dugu oino gehio izanen zireztela aurten.



Nous souhaitons à tous nos lecteurs petits et grands une excellente année 2023 riche en lectures.

Dans l'attente de vous accueillir encore plus nombreux, bonne et heureuse année 2023.



## BAZTAN

2022. sasoia aitzinekoak baino lasaiagoa izan da Baztan ibai-bazterretan eta inguruetan.

Baztan ur-bazterreko egoiliarren elkarteak eta Herriko Etxeak uda garairako kontratatu duen ekozaintzailearekin egin lanaren ondorioa da.

Formakuntzaz naturalista da Yves Etchegaray ekozaintzailea eta, alde batetik, ibilgailuen eguneroko kontaketetan aritzeaz gain, erregulatze-lanetan arizan da trafiko-soberakina zen aldietan, pedagogia anitz agertuz, bai tokiko biztanleei, turistei bezain bat. Zinez eskertzen dugu horretarako.

Jendeek errekan duten jokamoldea hurbiletik zaindu behar da, batez ere, zientifikoki arras aratz gisa ekarriak diren urak gerizatzeko. Lan xehea egina izan da, ongi hartzen gaituen naturaren mailan.

Europar igarabaren hatzak atzeman izan dira; Pirinioetako desmanaren gorotza batzu hartuak izan dira ere, eta mugimenduak detektatzeko kamerek erakustera eman digute espezie zaindu horiek hor dabilzkigula.

Lekuan gainean oinez ibiltzeak uretako mikroaberediari (mariorratzak, eltxoak, trikopteroak etab…) eta landaredi mota arraroei eragiten dien kalteaz ohartu gira ere; ondorioz, arrainak ere biziki kaltetuak dira.

Elkarlan hertsia egiten da Herriko Etxearekin, eta natura espezieen erakunde babeslearen (CEN) Akitaniako ordezkaritza gure urraspideetaz eta lanetaz jakinean ematen dugu. APRN delakoa eta gainerateko erabiltzaileak ere aritzen dira horretan.
Baztan ibaialdea eta hortik haratago ere, gure natura-beteko leku guziak ororen egitekoak dira: administrazioak, elkarteak, ur-bazterreko egoiliarrak eta alabaina erabiltzaileak ere…

2023. urte on deneri, gero eta hobeki ezagutzen, errespetatzen eta zaintzen dugun ingurumen batean!

La saison 2022 a été plus calme sur les rives du Baztan et ses accès que lors des saisons précédentes.

C'est dû au travail conjoint de l'Association des Riverains du Baztan et de la Mairie qui a recruté un écogarde pour la période estivale.

Naturaliste de formation, Yves Etchegaray, a d'une part fait le comptage du flux quotidien de voitures et effectué la régulation du trafic en période de sur-fréquentation, d'autre part il a fait preuve de beaucoup de pédagogie tant avec les locaux qu'avec les touristes. Nous tenons à l'en remercier vivement.

Une surveillance des comportements en rivière est nécessaire dans des eaux scientifiquement évaluées très pures et à protéger. Un travail minutieux a été fait sur la nature qui nous accueille.

Des empreintes de la loutre d'Europe ont été relevées ; des crottes du Desman des Pyrénées ont été prélevées, des caméras à détection de mouvements ont capté la présence de ces espèces protégées.

Nous avons également constaté un impact important du piétinement sur la microfaune aquatique (les libellules, les éphémères, trichoptères, etc…) ; les poissons en sont, de fait, extrêmement affectés ainsi que la flore d'espèces rares.

Une étroite collaboration se fait avec la Mairie et l'antenne d'Aquitaine du C.E.N. (conservatoire des espèces naturelles) est informée de nos démarches et travaux.
L'APRN et les autres usagers sont impliqués.
Le Baztan et au-delà, tous nos espaces de pleine nature, sont l'affaire de tous ; Administrations, Associations, tous les riverains et usagers bien sûr…

Bonne année 2023 dans un environnement de mieux en mieux connu, respecté et protégé !

## AFP HIRU MENDI

Bigarren urte erdi honetan, abere-parke zerratu bat egina izan da Baigura aldeko Xantxo lepoan.

Bidexka baten egiteko asmoa bada, Ihusuko bazkalekua irekitzeko. FREDERIC MARISCO enpresak eginen du 3m zabaleko eta 950 m luzetasuneko mendi-bide hau.

2021eko abenduko denbora txarrek arrunt andeatu zuten Mehatsera doan bidexka (metro 1 eta 2 metro arterainoko arroilak zenbait lekutan) eta bidexka honen segurtasun-obrak eginak izanen da ere.

Bidexka horren ereberritze eta segurtatze horri esker, kabala hazle trantsumatzaileek alhagune horiek balorizatzen eta hobeki zaintzen ahalko dituzte.
Kabalen jaustea, pausatua izanen den kanadar-baragailu bati esker bideratua izanen da ere.

Antolaketa ekintza horiekin batera, Artzaintzarako Funtsen Bidarraiko HIRU MENDI elkarteak Makeako eta Arrosako funtsen elkarteekin lanean dirau laborantza sustengatzeko eta balioan emateko, Lucie Trognon teknikariaren lanari esker. Lucie-ren lanaren sustenguz, artzaintzarako funtsen 3 elkarte horiek lurraldeko auzo herri eta artzaintza lurren elkarteengana jo dute.

Antolaketa hedatuago horrek, gaitasun eta esperientzia gehiago partekatzeko aukera emanen die.

Herriek eman diruzko sustenguak partzuergo bat sortzeko aukera emanen du herrien, departamenduaren, Euskal Elkargoaren, Akitania Berriko Eskualde Erakundearen eta Pirinio mendigunearen artean, egiazko mendialde politika baten egiteko artzaintza mailan eta erabilera anitzetarako; ekonomia eta ingurumena erabiltzaile ororen intereserako.

Ce deuxième semestre, un parc de contention a été réalisé au niveau du col Chancho sur le Baigura.

Il est prévu d'ouvrir une piste afin de désenclaver l'estive de Ihusu. Cette piste pastorale d'une largeur de 3m et longue de 950 mètres linéaires sera réalisée par l'entreprise FREDERIC MARISCO.

Les intempéries de décembre 2021 ont fortement endommagées la piste vers Mehatse (ravinement de 1 à 2 mètres par endroit), la sécurisation de cette piste sera également réalisée.

La réhabilitation et la sécurisation de cette piste permettront aux éleveurs transhumants de mieux valoriser et entretenir ces secteurs d'estives.
La descente des bêtes sera aussi canalisée par la pose d'un passage canadien.

En parallèle de ces actions d'aménagement, l'AFP HIRU MENDI de Bidarray continue de travailler avec les AFP de Macaye et de St-Martin-d'Arrossa afin de soutenir et valoriser l'agriculture grâce à l'animation de Lucie Trognon, la technicienne. Soutenues par le travail de Lucie, ces 3 AFP se sont rapprochées des communes et des AFP voisines sur le territoire.

Cette organisation plus élargie permettra de mutualiser plus de compétences et d'expériences.

Un soutien financier apporté par les communes permettra de créer un partenariat entre les communes, le Département, la CAPB, la Région Nouvelle-Aquitaine et le massif pyrénéen afin de mener une vraie politique montagne au niveau pastoral, multiusage; économie et environnement dans l'intérêt de tous les usagers.



Parc de contention Col XANTXO



## Jo Pilota

Egun on,

Biltzar nagusia iragan zen agorril bukaeran Joan den urteko bilduma egiteko eta bulegoko kide en aldaketentzat .

Esku huskako lehiaketa pasa da giro goxo batean Laguntzaile guziak mobilizatu dira ekimen hunen burura eremaiteko
Huna emaitzak:
4 garren maila
Allot/Arambel 40--Ospital /Landaboure 7
3 garren maila:
Etchevers/Cedarry 40--Bidondo Casemajor 26
2 garren maila:
Oronos/Oteiza --Franchisteguy/Franchisteguy 32
Lehen maila :
Ibarrola Muscarditz 40--Ibarrola/Olhagaray 38
Final eder batzu eskaini dizkigute jokola-riek,lehen maila n tinko izan da bukaera arte

Jende hurbildu da partiden ikustera eta usaian bezala afari eta gaualdiarekin bukatu da eguna

Eskertzen ditugu lagundu gaituzten lehengo bulegokoak beti kontseilu onak emaiteko hor direlako
Eskertzen dugu ere herriko etxea ,trinketa eta gelen prestatzea gatik eta bistandena jende guziak etorri direna egun eder horren pasatzera gurekin
Helduden urte arte !

Jo pilotako kide guzien partez.

Bonjour à tous,

L'Assemblée générale a été organisée en août afin de faire le bilan de l'année passée et pour procéder au changement de bureau.
Le tournoi de main nue s'est déroulé dans une ambiance joviale et conviviale. L'ensemble des bénévoles s'est mobilisé et investi après ce changement pour mener à bien ce tournoi.

Voici les résultats du tournoi :
**4ème série :**
Allot / Arambel 40 --- Ospital / Landaboure 7
**3ème série :**
Etchevers / Cedarry 40 --- Casemajor / Bidondo 26
**2ème série :**
Oronos / Oteiza 40 --- Franchisteguy / Franchisteguy 32
**1ère série :** Ibarrola / Muscarditz 40 --- Ibarrola Olhagaray 38

Nous avons assisté à de belles finales avec beaucoup de suspense pour la dernière partie. Lors de chaque partie, le public était au rendez-vous. Il s'en est suivi le repas et la traditionnelle soirée.

Nous remercions les anciens du bureau qui donnent toujours de bons conseils ainsi que la mairie pour la mise à disposition des locaux.
Nous remercions également toutes les personnes qui nous ont aidé et celles qui sont venues en nombre lors de cette journée.
À l'année prochaine pour de nouvelles aventures !
Toute l'équipe de Jo pilota vous souhaite une merveilleuse année bien sportive





## Irulegiko irratia

IRULEGIKO IRRATIAn informazioak pasarazten ahal dituzte elkarteek.
Horretarako, Marcelle Seychal edo Kattalin Sallaberry (06.25.51.08.55).

Les associations peuvent diffuser des informations sur la chaîne de radio IRULEGIKO IRRATIA.
Pour cela, contactez Marcelle Seychal ou Kattalin Sallaberry (06.25.51.08.55).



## Yoga

Egun on deneri

Osasuna Maitasuna Asktasuna elkartea antolaturik Kundalini Tantra Yoga kurtsoak untsa hasi dira
Gorputza, spiritualitatua eta animaren baterarendako den biziko artu bat.
Astelehenetan 7an Arrume Gelan emaiten dira.
Ongi etorri guzieri.
Zorionak eta urte berri on!

Xehetasunak, Pantxika : 06 47 07 64 12



Bonjour,

Organisés par l'association OMA (Sante, Amour, Liberté )
les cours de Kundalini Tantra Yoga se déroulent tous les lundis à 19h salle Arrume
Une discipline pour l'Unité corps, esprit, âme .
Bienvenue à tous
Meilleurs vœux

Renseignements :
Pantxika 06 47 07 64 12
http://kinesiologie-bayonne-biarritz.fr/index.php/yoga/





## Réflexion sur le projet de Réserve Naturelle

Mondarrain, Artzamendi eta Iparla mendiguneetan, paregabeko natura eta kultura-ondareak ditugu eta horietako elementu zenbaitetan ahalegin bereziak egin behar dira haien zaintzeko.

Zohikaztegi ttipi anitz daude, landaredi bereziarekin; larre eta soropilez osatu artzainguneak (non hegazti eta herrestari espezie mehatxatu anitz baitira); arroila heze eta hertsiak, non landare espezie oso bakanak baitira (haietako zenbait Euskal Herriko mendebaldeko eta kantauriar mendietako espezie endemikoak baitira); zulo naturalak, mehategiak edo bordak, non, besteak beste, gauenarak gordetzen baitira; hegazti harrapariak eta txoriak ugaltzen diren ezpondak; basoak eta oihanak, zeinetako zuhaitz zaharrenak kakalardo eremita edota alpetar kakalardo adarluzea bezalako intsektu bakan-bakanen gordeleku baitira; betizu berezien behitaldeak… Mendigune osoa naturaleku bakana da, oreka hauskorrekoa.
Ekintza anitz egiten dira mendigunean Natura 2000 baliabidearen bitartez (Mondarrain-Artzamendi, Aldudeko ibarra, Errobi); indarrean dira Mondarrain eta Artzamendirako Akitania Berriko Naturaguneen Erakunde Babeslearen (CEN) kudeaketa plana eta beste baliabide anitz (tokiko araudiak, bazkalekuen araudia…), baina ez da baliabide aski mendigunearen eta haren etorkizunaren talde kontrola eta koordinazioa ongi egiteko.
Alabaina, mendiguneak hainbat jokagairi eta presio gero eta gogorragoei egiten die buru: turisten bertaratzea, kabala hazleen zailtasunak, inguruneen andeatzea, arau hausteak… Behar handiak agertzen dira, hala nola mendigunearen zaintza; mendiaren erabiltzaileen arteko artekotasuna, besteak beste, mendigunearen zati handi batek duen artzaintza zeregina beste erabilerekin bateratzeko, jendeak ohartarazteko, etab.
Egun, mendigunea kudeatzeko tresna bat plantan ematearen beharra agertzen zaigu, jadanik egiten diren urraspideak eta erabiltzen diren tresnak barneratuz eta baliabide egokiak erabiltzeko aukera eman dezan. Natura Erreserba bereziki egoki den tresnatzat ageri zaigu eta Akitania Berriko Naturaguneen Erakunde Babesleak, Bidarrai, Itsasu, Ezpeleta eta Ainhoa herriekin hertsiki loturik, egokitasun azterketa bati ekin dio mendigunean natura erreserba sortzeari buruz.
Urraspide horren hastapenean, gurekin batera nahi zaituztegu, biztanleekin partekatu nahi baititugu elementu horiek, eta lehenik eta behin mendiguneetan lursailak dituzten jabeekin, informazio bilkura batean, **otsailaren 8, asteazkenean, 20:00etan, Bidarraiko Herriko Etxeko Arrume gelan.**
Horren osagarri, gurekin mintzatu nahi duten jabeekin xehekiago mintzatu ahal izateko, bi harrera saio proposatzen dizkizuegu Herriko Etxean, bertan Naturaguneen Erakunde Babeslea (CEN) izanen delarik: **otsailaren 23an, 14:00etatik 19:00etara** eta **martxoaren 2an, 14:00etatik 19:00etara**
Harrera saio horietako ordu tarte bat erreserbatu nahi baduzu, berehala jar zaitez gurekin harremanetan.

Les massifs du Mondarrain, de l'Artzamendi et d'Iparla présentent des patrimoine naturels et culturels uniques, dont certains éléments nécessitent des efforts particuliers en vue de leur préservation.

Les nombreuses petites tourbières et leur flore singulière, les zones pastorales formées de landes et pelouses (qui accueillent plusieurs espèces d'oiseaux et de reptiles menacés par exemple), les ravins humides et encaissés où l'on trouve de très rares espèces végétales (dont certaines sont endémiques de l'ouest du Pays Basque et monts cantabriques), les cavités naturelles, mines ou bordes accueillant notamment des chauves-souris, les falaises où se reproduisent rapaces et passereaux, les bois et forêts, dont les plus vieux arbres hébergent des insectes rarissimes comme le pique-prune ou la rosalie des Alpes, troupeau des singulières betizu, … Tout le massif est un écrin unique, à l'équilibre fragile.
De nombreuses actions sont menées sur le massif à travers Natura 2000 (Mondarrain-Artzamendi, vallée des Aldudes, la Nive), le plan de gestion du CEN Nouvelle-Aquitaine sur le Mondarrain et l'Artzamendi, et de nombreux autres dispositifs sont en vigueur (règlements locaux, règlement d'estives, …), mais les moyens manquent pour assurer la bonne coordination et la maîtrise collective du massif et de son avenir.
En effet, le massif fait face à des enjeux multiples, et des pressions de plus en plus prégnantes : fréquentation touristique, difficultés rencontrées par les éleveurs, dégradation de milieux, infractions, … Des besoins importants apparaissent, comme la surveillance du massif, la médiation entre usagers de la montagne, notamment pour concilier la vocation pastorale d'une grande partie du massif avec les autres usages, sensibiliser des publics, etc.
Il ressort aujourd'hui le besoin de mettre en place un outil dédié à la gestion du massif, qui intègre les démarches et outils déjà engagés, et qui permet de mobiliser les moyens adaptés. La Réserve Naturelle ressort comme un outil particulièrement adapté, et le Conservatoire d'Espaces Naturels de Nouvelle Aquitaine, en lien étroit avec les municipalités de Bidarray, Itxassou, Espelette et Ainhoa, engage une étude d'opportunité pour la création d'une Réserve Naturelle sur le massif.

Au commencement de cette démarche, nous vous y associons et souhaitons partager ces éléments avec les habitants, et en premier lieu les propriétaires de parcelles sur les massifs, lors d'une réunion d'information, qui aura lieu le **mercredi 8 février à 20h, dans la salle Arrume de la maire de Bidarray.**

En complément, afin de pouvoir échanger de façon plus détaillée avec les propriétaires qui le souhaitent, nous vous proposons d'ores et déjà deux permanences en mairie, en présence du CEN : **le 23 février de 14h à 19 h** et **le 2 mars de 14h à 19 h.**
N'hésitez pas à nous contacter d'ores et déjà si vous souhaitez réserver un créneau horaire pendant ces permanences en contactant la mairie.

## PLUi

Hainbat gaikako tailerretan, zuzendaritza-batzordeetan eta beste lan-saio batzuetan, tokiko hautetsiek eta Euskal Elkargoak hainbat arlotako adituak dituzte lagun, lan horietarako, lurraldeko jokagaiei ahal bezain hurbiletik erantzunen dien Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-Plan baten lantzeko.

Gaur egun, azterketak lurralde-diagnostikoa lantzeko heinean daude, eta honek lurraldearen jokagai nagusiak finkatzen ditu. Diagnostiko problematizatu honi esker, Baxenabarreko hautetsiek eta Euskal Hirigune Elkargoak, ondoko 10 urteetarako garapen-prospektiba bat finkatzen ahalko dute, Antolaketa-eta Garapen-Iraunkorren Proiektuaren bidez gauzatua.

Herritarrak eta hautetsiak laster mobilizatuko dira, batez ere bilkura publikoetan, proiektuen aitzinamenduak eta hirigintzako dokumentu berri honen helburu nagusiak aurkezteko.

Urrunago joateko, Hego Baxenabarreko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza-Planak informazio plataforma bat badu, azterlan dokumentuak bertan eskura ezarriak izanen baitira lantze-prozesuaren denbora osoan: https://plui-sudbassenavarre.communaute-paysbasque.fr/

Proiektuaren eraikuntzan parte hartu nahi baduzu, zure oharrak ere aurkez ditzakezu, lurraldeko Herriko Etxe bakoitzean zure eskura ezarriak diren elkar aditze-erregistroetan idatziz.

L'élaboration du PLUi (Plan Local d'Urbanisme Infracommunautaire) initié en février 2020 se poursuit.

Lors de divers ateliers thématiques, de comités de pilotage et autres séances de travail, les élus locaux et la CAPB sont accompagnés d'experts dans différents domaines (environnemental, socio-économique, agricole, …), afin d'élaborer un PLUi qui réponde au plus près aux enjeux du territoire.

Les études sont actuellement au stade de l'élaboration du diagnostic territorial, définissant les principaux enjeux du territoire. Ce diagnostic problématisé va permettre aux élus de Sud-Basse-Navarre et à la CAPB de définir une prospective de développement pour les 10 prochaines années, traduite à travers le Projet d'Aménagement et de Développement Durables.

Les habitants et les conseillers municipaux seront prochainement mobilisés, notamment lors de réunions publiques présentant les avancements des projets et les principaux objectifs visés par ce nouveau document d'urbanisme.
Pour aller plus loin, le PLUi Sud-Basse-Navarre dispose d'une plateforme d'information dédiée ou seront mis à disposition des documents d'étude tout au long de la procédure d'élaboration : https://plui-sudbassenavarre.communaute-paysbasque.fr/
Si vous souhaitez participer à la construction du projet, vous pouvez également faire part de vos observations en les inscrivant dans les registres de concertations mis à votre disposition dans chaque mairie du territoire.

## 2022ko Hiriginzako baimenak — Autorisations d'Urbanisme









## PanneauPocket

**Berri guziak ezagutzeko, PanneauPocket aplikazionea deskargatzen ahal duzue (urririk). Deskargatzen ahal duzue Applestore eta Google Play-en.**

**ECOWATT baliabidea segitzen ahalko duzue direktuki aplikazione hortan. « 11111 » gehitu herritan.**

**Pour suivre l'actualité de Bidarray, pensez à télécharger l'application (gratuite) PanneauPocket.**
**Disponible sur AppleStore et GooglePlay.**

**Une liaison est assurée avec le dispositif ECOWATT: ajouter « 11111 » dans la barre de recherche 'Communes'.**

## Biztanle Kondaketa — Recensement




16 urte baino gehiago dituzu ? Herriko etxerat biztanle kondaketa egin behar duzu (hori galdetua da etsaminentzat, lan kodearentzat eta gidaltzeko permisarentzat adibidez).

Jeunes à partir de 16 ans, pensez à venir vous recenser en mairie (indispensable pour les examens, code de la route et permis de conduire).

## PSC1 Formakuntza — Formation PSC1

PSC1 formakuntza bat antolatua izanen da otsailaren 25ean eta martxoaren 4ean (larunbat goizetan).

**30€ko parte hartze bat galdetua da,** jakinez 55€tan dela formakuntza hori (herriko etxeak 25€ko diferentzia pagatzen du).

Bidarraitarrek parte hartzen ahal dute formakuntza hortan herriko etxea deituz.

Une formation PSC1 (Prévention et secours civiques de niveau 1) sera organisée à Bidarray les samedis 25/02 et 04/03 sur les deux matinées.

**Participation demandée: 30€ par participant**; sachant que le coût réel de la formation est de 55€ (soit une prise en charge de 25€ par la commune).

Inscriptions en mairie.

## Mugikortasuna — Mobilités

Horaires pour la ligne TER 54 Bayonne – Garazi:

| Départ de Bidarray | Arrivée à Bayonne | Départ de Bayonne | Arrivée à Bidarray | |
|---|---|---|---|---|
| **6H47** | 7h34 | 6h20 | 7h27 | du lundi au samedi |
| **08H43** | 9h45 | 8h52 | 9h37 | du lundi au samedi |
| **12h41** | 13h29 | 12H35 | 13H21 | du lundi au vendredi |
| **17h19** | 18h02 | 17h13 | 18H19 | du lundi au vendredi |
| **18h28** | 19h29 | 18h36 | 19H24 | du lundi au vendredi |

**Vous trouverez sur le lien ci-après les itinéraires bus proposés par le réseau Txik-Txak:**
https://www.txiktxak.fr/preparez-votre-trajet/fiches-horaires-hiver-a-telecharger/

## ON EGIN BIDARRAI

2020-tik goiti Bidarraiko herriko etxeak tokiko eta kalitatezko mozkinen kontsumitzearen alde dinamika bat abiatu du helburu nagusi hauekin :

**Tokiko produktuen kontsumitzea, hemengo ekonomia bultzatuz, kalitatea segurtatuz eta ingurumena zainduz.**

Ondorioz, asteartetan, plazako ARTETXEA gelan ondoko ekoizleen produktuen erosteko parada badugu :

UR HEGIAN (Bidarrai)
JOSU OTSANAITZ (Urritzate)
ANTXORDOKIA (Bidarrai)
TURTXILENEA (Bidarrai)
SURRAIA (Bidarrai)
LES PETITS NAUFRAGES (Bidarrai)
MATTEO VILLATTE (Isturitze)
ITSAS MENDI (Senpere)
OHETA (Arrosa)
PELLOENEA (Itsasu)
OGI ZUHAITZA (Ortzaize)
GARRO (Lekorne)

Interesatuak bazirezte ez duda gurekin harremanetan sartzea ANTTON 06-07-56-6-10 zenbakirat deituz.

Depuis 2020, la commune de Bidarrai a lancé une dynamique afin de donner la possibilité aux habitants de consommer des produits locaux et de qualité avec pour objectifs de :

**Consommer des produits locaux pour développer l'économie locale en assurant la qualité et en préservant l'environnement.**

Par conséquent, les mardis nous avons la possibilité d'acheter les produits des producteurs suivants :

UR HEGIAN (Bidarrai)
JOSU OTSANAITZ (Urritzate)
ANTXORDOKIA (Bidarrai)
TURTXILENEA (Bidarrai)
SURRAIA (Bidarrai)
LES PETITS NAUFRAGES (Bidarrai)
MATTEO VILATTE (Isturitze)
ITSAS MENDI (Senpere)
OHETA (Arrosa)
PELLOENEA (Itsasu)
OGI ZUHAITZA (Ortzaize)
GARRO (Lekorne)

Si vous êtes intéressés n'hésitez pas à nous contacter en appelant ANTTON au 06-07-56-63-10.

## Eguneroko bizia

Bidarraiko postaren orduteguiak:

astelehenetik ostiralera - 10tik eguerdiraino.

## Vie pratique

Rappel des horaires de la Poste de Bidarray:

-Du lundi au vendredi de 10h00 à 12h00.

## Eskola

Eskolarako izen emateak Herriko Etxean egiten dira. Eskola baitezpadakoa zaio 3 urtez goitiko haur orori. Halarik ere, 2 urteko haurrak ere joan litezke Bidarraiko eskolara.

2022ko apirilaz geroztik, tarifa lagundu bat ezarria izan da jantegiarendako.

Izen emateari buruzko argibide orotarako (eskola, jantegia eta haurtzaindegia) Herriko Etxearekin jar zaitez harremanetan eta tarifa lagunduen xehetasunak gure webgunean ikus: bidarray.fr

## Ecole

Les inscriptions à l'école se font en mairie. L'école est obligatoire pour tout enfant à partir de 3 ans. Cependant, les enfants de 2 ans peuvent être accueillis à l'école de Bidarray.

Depuis avril 2022, une tarification sociale a été mise en place pour la cantine.

Pour tout renseignement concernant les inscriptions (école-cantine et garderie) vous pouvez contacter la mairie et consulter le détail de la tarification sociale sur notre site internet bidarray.fr



## OROITARAZI—RAPPEL

Ikusirik azken urteotan arauez kanpoko edota legez kanpoko zenbait eraikuntza-lan eginak izan direla (antolaketak, eraikitzeak edota aurtikitzeak) Bidarraiko herriak hitzarmen bat sinatuko du Euskal Elkargoarekin hirigintza baimenak egokiak direla kontrolatuko duen zinpeko langile bat hartzeko.

Alabaina, jakin behar da herritar batek baimenik gabeko lanak egiten dituelarik, **isunpeko zigor arauhaustea** (1 200 € - 300 000 € artekoa) egiten duela.

Gainera, hirigintza baimenik gabeko eraikin batean gerta litekeen istripua ez da asurantzapean izanen. Legez kanpoko eraikina, alde bateko segurtasun eskasian da.

Hirigintza baimenak Euskal Elkargoko hirigintza zerbitzuak, indarrean den Tokiko Hirigintza Planaren arauak betez, eman administrazio erabakiak dira.

Hirigintza baimenek hiri-garapena kontrolatzeko aukera ematen diete herriei eta herriko zerbitzuen (eskola, bideak, etab) funtzionamendu ona laguntzen dute ere, eraikiaren gaineko zergek diruztatzen baitute zerbitzu horien zati bat.

Zein itxura lukete gure herriek eta gure baserrialdeek lanetarako baimenik ez balitz behar?

**Arau orokorrak:**

Administrazio-prozedurarik behar ez duten eraikin bakarrak, 5m² baino ttipiagok direnak dira (baratzeko estalgunea, oilategia, etxolak).

5-20 m² arteko proiektuentzat, Aitzinetikako Adierazpen dosierra aurkeztea komeni da.

Aldiz, zure proiektuaren eremua 20 m² edo hortik gorakoa baldin bada, Eraikitze Baimenerako dosierra aurkeztu behar duzu.

Desegite orotarako, Desegite Baimena behar da.

Zure eskaerak hona honetako webgunean aurkez ditzakezu: DEPOT-PERMIS:

https://www.depotpermis.fr/?insee=64124




Constatant depuis quelques années que des constructions illégales et/ou non-conformes sont survenues sur notre territoire (aménagements, constructions ou démolitions) comme d'autres communes du Pôle Garazi-Baigorry la commune de Bidarray va conventionner avec la CAPB afin de missionner un agent assermenté qui contrôlera la mise en conformité des autorisations d'urbanisme.

En effet, il faut savoir que lorsqu'un administré réalise des travaux sans autorisation, il commet une **infraction pénale possible d'amende** (de 1200€ à 300 000€). De plus, un sinistre survenu sur une construction sans autorisation d'urbanisme peut ne pas être couvert par les assurances. Un bâtiment illégal évolue dans une insécurité permanente.

Les autorisations d'urbanisme sont des arrêtés administratifs instruits par le service urbanisme de la CAPB dans le respect des règles du PLU en vigueur.

Les autorisations d'urbanisme permettent aux communes de contrôler le développement urbain et contribuent également au bon fonctionnement des services communaux (école, voirie, etc) financés en partie par les taxes sur le bâti.

A quoi ressembleraient nos villages et nos campagnes sans autorisation de travaux?

Règles générales:

Seules les constructions de moins de 5m² sont dispensées de procédure administrative (abri de jardin, poulailler, cabanons).

Pour les projets de 5 à 20 m², il convient de déposer un dossier de Déclaration Préalable.

En revanche, si la surface de votre projet est supérieure ou égale à 20 m², un dossier de Permis de Construire est indispensable.

Toute démolition nécessite un Permis de Démolir.

Vous pouvez déposer vos demandes sur le site DEPOT-PERMIS:

https://www.depotpermis.fr/?insee=64124

## BEREIZKETA ORAINDIK ERREXAGOA

**Hondakinen bereizketa: 2023ko urtarrilaren 1ean aldatuko dena**

**2023ko urtarrilaren 1etik goiti, Ipar Euskal Herriak urrats berri bat emanen du lurralde osoan bilketa selektiboaren inguruan: bereizketa manuak hedatuko dira estalki eta paper guzietara, hondakinen ingurumen-eragina murrizteko, hauek ahal bezain bat bereiziz. Helburua da, bilketa selektiboan 93 kilotik 100 kilora pasatzea biztanleka.**

Estalkien eta paperen bereizketa sinplifikatuko da 2023an. Urtarrilaren 1etik goiti, etxeko estalki eta paper guziak nahas-mahas bota beharko dira gurpildun edukiontzietan edo edukiontzietan, zainduz ongi hustuak direla eta bata bestearekin ez direla lotuak.

Lehenago etxe-hondakinekin botatzen ziren estalki berri batzuk eta metalezko hondakin tipi batzuk bereizten ahalko dira: plastikozko zakuak eta zakutxoak, janari ontzixkak, janari mintzak, jogurt ontziak, esne-gain gordin ontziak, maionesa eta hortz-pasta hodiak, kafe kapsulak, metalezko ontzien eta berinazko ontzien tapakiak, erremedio tableta hutsak…

Berinazko estalkiak (botilak, ontziak, flaskoak, berinazko ontziak) aparte bereiziko diren ekai bakarrak izanen dira, usaiako edukiontzietan utziz. Salbu, haien plastikozko edo metalezko tapoiak eta estalkiak zikinontzi horian bereiztekoak dira!

Bukatzeko, konpostaketari esker, biohondakinak etxe hondakinen zikinontzietatik ken daitezke, zikinontzia arintzeko!

Asmo handiko helburu horiek lortzeko, Euskal Elkargoak, lurraldeko herriko etxeekin batera, 14 milio euro inguruko inbertsio-lan handia eramaten ari da 2022 eta 2023 urteetarako. Eta Euskal Elkargoak daramatzan Bilketa-inbertsio horiek, Bil Ta Garbi Sindikatuak osatzen ditu, paper-estalkien bereizketa prozesua berreraikiko baitu Baionako Canopian, 15.5 M€ inguruko inbertsio gehigarriarekin, estalki berri horiek bereizteko eta balorizatzeko xedearekin.

## LE TRI ENCORE + FACILE

**Tri des déchets : ce qui va changer au 1er janvier 2023**

**Au 1er janvier 2023, le Pays Basque franchit une nouvelle étape dans la collecte sélective sur l'ensemble du territoire : la consigne de tri s'élargit à tous les emballages et papiers pour réduire l'impact environnemental des déchets en les triant au maximum. Objectif passer de 93 à 100 kg par hab en collecte sélective.**

Le tri des emballages et papiers se simplifie en 2023. Dès le 1er janvier, tous les emballages ménagers et papiers se trieront ensemble et seront à déposer en vrac dans les bacs ou colonnes en veillant à bien les vider et ne pas les imbriquer.

De nouveaux emballages et petits déchets métalliques, autrefois jetés avec les ordures ménagères, pourront être triés : sacs et sachets en plastique, barquettes alimentaires, films alimentaires en plastique, pots de yaourt, de crème fraîche, les tubes mayonnaise et dentifrice, les capsules de café , les couvercles des pots et bocaux métalliques, les tablettes vides de médicaments…

Les emballages en verre (bouteilles, pots, flacons, bocaux) resteront le seul matériau trié, à part, dans les colonnes habituelles. Seuls leurs bouchons et capuchons en plastique ou en métal sont à trier dans la poubelle jaune !

Enfin, grâce au compostage les biodéchets peuvent eux aussi être détournés de la poubelle ordures ménagères pour l'alléger d'autant. !

Afin d'atteindre ces objectifs ambitieux, la Communauté Pays Basque mène, avec les communes du territoire, un chantier colossal d'environ 14M€ d'investissement sur 2022 et 2023.
Et ces investissements de collecte conduits par l'agglomération sont complétés par ceux du Syndicat Bil Ta Garbi qui va reconstruire le process de tri des papiers-emballages de Canopia à Bayonne, avec un investissement supplémentaire d'environ 15,5 M€, afin de pouvoir trier et valoriser ces nouveaux emballages.



## BEREIZKETA PUNDUAK

Baigorri: asteartea et larrunbata:
9h-12h et 14h-17h
osteguna 14h-17h.

Donazaharre:
Asteazkena eta larunbata: 9h-12h et 14h-17h
Astelehena et ostirala: 14h-17h.

Ehunak (jantziak, zapetak, etxko oihalak) bi garren bizi bat ukaiten ahal dute: birziklatzen ahal dira (adibidez Arnateko punduan).



Kompostagailu bat ukaiten ahal duzue 10€ ordainduz txekez tesoro publikoari.
Eskaera:

06.45.49.29.19

laura.cavillon@biltagarbi.fr

## DECHETERIES

Baigorry: mardi et samedi: 9h-12h et 14h-17h
Jeudi 14h-17h.

Saint-Jean-le-Vieux
mercredi et samedi: 9h-12h et 14h-17h
Lundi et vendredi: 14h-17h.

Vos textiles (vêtements, chaussures et linge de maison) peuvent connaitre une seconde vie : penser à les recycler. Un point tri est disponible à cet effet à Arnate.

Déchèterie

Composteur disponible sur demande en contactant l'ambassadrice du tri. Participation de 10€ par chèque à l'ordre du Trésor Public.
Commande au:

06.45.49.29.19

laura.cavillon@biltagarbi.fr

